

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legearen proiektua onartu du

Helburuak dira hondakinak sortzea prebenitzea, kudeaketa hobetzea eta ekonomia zirkularrean eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan aurrera egitea

Asteazkena, 2017.eko azaroak 22

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran akordio bat hartu du; hau da, [Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legearen proiektua](#) onartzen duen akordioa. Akordioaren helburu nagusiak dira hondakinak sortzea prebenitzea, kudeaketa hobetzea eta ekonomia zirkularrean eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan aurrera egitea, Foru



Nafarroako Gobernuak Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legearen proiektua onartu du.

Komunitatearen eskumenen esparruan. Modu horretan, Europako araudian eta onartu berria den Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Planean (NHP) aurreikusitako helburuak lortu nahi dira.

Gogoratu behar da Lege hau egin dela NHPk horrela eskatzen zuelako, hondakinak sortzea prebenitzeko, hondakinak murrizteko eta horien kudeaketa hobetzeko helburuak lortzeko beharrezko instrumentu gisa.

Gaurko akordioaren ondoren, testua Nafarroako Parlamentura eramango da, ondoren eztabaidatzeko eta, hala behar izanez gero, onartzeko.

Helburu nagusiak

Gaur onartutako proiektuan, hondakinak prebenitzeko eta behar bezala kudeatzeko antolakuntza-neurriak ez ezik, horretarako tresna ekonomikoak ere zehazten dira. Helburu nagusien artean, honako hauek aipatu behar dira: hondakinak ingurumena eta gizakion osasuna arriskuan jarri gabe kudeatzea bermatzea, herritarren bizi-kalitatea hobetuz; hondakin gutxiago sortzea eta horiek aprobetxatzea bultzatzea, berrerabiliaz eta birziklatuz; zabortegean ezabatzea eta hondakinen errausketa ez bultzatzea; eta bi praktikak zergapetzen dituen zergaren araubide juridikoa ezartzea.

Halaber, helburu hauek nabarmendu behar dira: espazio degradatuak birsortzea eta zoruen kutsadura kentzea; Nafarroako herri administrazioen eskumen eta antolakuntza mailako erregimena ezartzea; eta etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa egoki bat bermatzea, Administrazioak eta tokiko erakundeek koordinatuta, garraioan nahiz tratamenduan edota materialak berreskuratzerakoan.

Hondakinen inguruko 2017 Planean, jada agertzen da Prebentziorako Programa espezifiko, hondakinen hierarkia piramidean alderantzizatzeko eta ezabaketaren gainean prebentzioa nagusitzea lortzeko xedearekin. Ildo horrekin bat eginez, Legearen proiektuko IV. Titulu osoan prebenitzeko eta kudeatzeko abian jarriko diren neurri horiek zehazten dira: Hondakinak Prebenitzeko Bulegoa eta ekonomia zirkularra bultzatzea, erosketara publiko berdea, etxeko eta merkataritzako hondakinen materia organikoaren gaikako biltzea eta berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea. Horrez gain, plastikozko poltsen erabilera eta erabilera bakarreko ontzien salmenta erregulatzen ditu, ontzien prebentzio-neurriak ezartzen ditu eta kudeatzeko beste sistemetan eta ekitaldi publikoetan jarraitu beharreko arauak; baita, sentsibilizatzeko, laguntzeko eta informazioa emateko kanpainak egitea ere.

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilaria den Isabel Elizalde aurkeztu du proiektua Gobernuaren Bileraren ondorengo prentsaurrekoan. Elizalde beste alderdi batzuk ere nabarmendu ditu; hala nola, fiskalitatea eta kudeatzeko Erakunde Publiko berria. Azken hori tokiko erakundeek eta Foru Komunitateko Administrazioak osatuko dute, eta, Legearen arabera, "eginkizuna betetzeko forma juridikorik egokiena" onartuko du, erabakiak hartzeko organoan gehiengo eskumenerako tokiko erakundeek izatea bermatuz. Forma juridikoa datozen sei hilabetetan definituko da, eta, egun horretan, egungo Kontsorzioa ere deseginda geratuko da.

Ezabaketari buruzko zerga

Fiskalitateari dagokionean, eta hondakinen politika berri hau finantzatzea bermatzearen, Legeak zabortegean ezabatzeari eta errausteari buruzko zerga ezartzen du, prebentzioa eta berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea sustatzeko eta zabortegean ezabatzea eta erraustea ez bultzatzeko xedearekin. Legeak fiskalitate hau ezartzen du kontrolaren iraunkortasun ekonomikoa eta hondakinen ebaluazioa eta kudeaketa ziurtatze aldera, ekonomikoki zigorak ezarriaz hondakinen sorreraren arabera.

Kontseilariak azaldu du zerga horrekin lortutako sarrerekin aurrekontuko partida espezifiko bat osatuko dela, "Hondakinen funtsa" deiturikoa, eta etorkizuneko Legean aurreikusitako xedeetarako bakarrik erabiliko da: prebentzio arloko sentsibilizazio eta ikerketa lanak; gaikako biltzetaren sistemak eta garraioa hobetzea; zona degradatuak eta kutsatutako lurzoruak berreskuratzea; eta berrerabiltzea prestatzeko jarduerak, besteak beste.

"Egia esan, —Elizalde azaldu du— zerga hori desagertzera bideratuta dago, zabortegean ezabatzeagatik ordaintzen baita; beraz, mankomunitate batek zenbat eta gutxiago bideratu zabortegea, herritarrek are eta gutxiago ordainduko dute".

Proiektua egiteko prozesua

Nafarroako Hondakinen Planean urtebeteko epea ezartzen zen Lege proiektua idazteko, bertan parte hartzeko eta Parlamentura bidaltzeko. Lan hori egiten otsailan hasi ziren, hasierako zirriborroarekin. Orain arte, alde zuzeneko kontsulta publikoa egin da, eta parte hartzeko prozesurako ekarpenak eta iradokizunak jaso dira Gobernu Irekiaren atariaren bitartez. Hilabete horietan, dokumentuan honako hauek parte hartu dute: maila ezberdinak lan-taldeak, mankomunitateak, Ingurumen Kontseilua, Toki Araubidearen Batzordea edota Gobernu Departamentuak.

Prozesuak Hondakinen Plana egiteko burututako lanerako ildo bera jarraitu du, parte-hartze eta adostasunen bilaketarekin eta erakundeek eta partikularrek parte hartuta. Guztira, 76 erakunde edo partikularren 395 ekarpen edo iradokizunak jaso dira, eta batez ere enpresek, elkarte sektorialeak eta tokiko erakundeek hartu dute parte, %29, %26 eta %22, hurrenez hurren.

Parte-hartze kopuru horiei 25 erakundeek eta partikularrek erakusketa publikoaren fasean egindako 133 alegazio gehitu behar zaizkie.

Datozen hamarkadarako gaikako %70eko bilketaren erronka

2015eko datuen arabera, Nafarroak etxeko hondakinen eta hondakin komertzialen 266.530 tona sortu zituen; hau da, pertsona bakoitzak 1,14 kg eguneko. Kopuru osoaren %33a soilik gaika bildu eta tratatu zen, eta foru Exekutiboaren erronka da %70ra iristea datorren hamarkadan.

Nafarroan, ontziak, papera-kartoia eta beira birziklatzeko tasa oso altua bada ere, etxeetan materia organikoa ez da hainbeste bereizten. Ondorioz, gehiengoak hori egitea lortzeko asmoarekin, Planean jasotzen da 2017 eta 2018 urte artean materia organikoaren bilketa zabalduko dela Foru Komunitateko txoko guztietara, mankomunitate bakoitzak erabakitako sistemarekin.

Ildo horretan, Tokiko Azpiegituren 2017-2019 Planean (TAP), hamar instalazio egokitzea eta eraikitzea jasotzen da, eta tartean honako hauek aurkitzen dira: Arbizukoak, Tafallako, Zangozako eta Doneztebeko transferentzia instalazioak eta Carcar eta Culebreteko tratamendu-zentroak. Horien guztien artean, urtean 30.000 tona inguru tratatzeko edukiera dute.

Gainera, beste hainbat azterketa-fasean aurkitzen dira, eta datozen urteetan gauzatuko dira; esate baterako, Elizondo, Irunberri eta Izarbeibarkoak. Instalazio horietako hainbat eskala eta hurbiltasunekoak dira (horietako batzuek gizarteratzeko enpresek ere artatzen dituzte) eta beste batzuek handiagoak. Eskala eta hurbiltasunekoak urtean ehunka tona inguru tratatzeko lirateke, eta, tamaina handiagokoen kasuan (Arbizu, Tafalla, Carcar ed Culebrete) milaka tona tratatuko lituzke bakoitzak.